

Pakea Bizkaiak Ekuatorea zeharkatu du

Pakea Bizkaiak gaur asteartean lekuko 5:45etan ipar- eta hego-hemisferioa banatzen dituen irudizko marra zeharkatu du. Espedizio luze honetako lehenengo helburu handia bete da eta aldi berean, gutxi gora-behera, bi aste barru Buenos Airesen amaituko den zeharbidearen lehenengo astea.

Pakea Bizkaiak gaur asteartean lekuko 5:45etan Ekuatorea, ipar- eta hego-hemisferioa banatzen dituen irudizko marra, zeharkatu du. Azken egunetako ekialde eta hegoekialdeko 17 korapiloko haizeek zeharkatzearen momentu aurreko eta ondorengo miliak 8-9 korapilotan nabigatzea egin dute posible. Horrela, espedizio luze honetako lehenengo helburu handia bete da eta aldi berean, gutxi gora-behera, bi aste barru Buenos Airesen amaituko den zeharbidearen lehenengo astea.

Ohitura da nabigatzaileen artean bataio-zeremonia bat egitea hemisferio batetik bestera inoiz pasa ez direnekin. Tradizioak diotenaren arabera, "itsasoetako subiranoaren haserrea ekiditeko" egiten da, horregatik, momentu hori lehenago bizi izan dutenez Unai Basurko kapitainak eta bigarren kapitaina den Gonzalo Terceñok izan ezik, beste tripulatzaileek eskaintza bat egingo dute zeremonian.

Duela aste bete, Pakea Bizkaia espedizioaren zeharbide luzeenetako batean dago: Cabo Verde- Buenos Aires. Hiru aste inguruko zeharbideari aurre egiteko, kontsumo orokorrerako 1.600 ur-litro daramatzate eta 350 litro edangarri, hala nola 35 larrialdirako. Janariari dagokionez, nahiz eta belaontzian zeharbideari aurre egiteko behar dutena baino arroz, lekari, kuskus eta pasta gehiago eraman, 21 kg beharko dituztela aurreikusitakoak.

Belaontzia, barealdi ekuatorialen gunean egon da eta azken astean gune horretan berezkoak diren aldaketa meteorologikoak bizi izan dituzte. Barealdiak daude eta beroak eragiten dituen euri-zaparradak, noizean behin, haize bolada indartsuak sortzen ditu. Horrela, behin 40 korapiloko intentsitatea zuten haize boladak jasan zituen tripulazioak baita ikusmena asko zaildu zuten euri-zaparradak ere. Gaua ematen zuen. Eskerrak, baina, ordubete baino ez zuela iraun. Euri-zaparrada horiek arreta handia jartzen behartzen dituzte, egunez zeruertzari eta gaez radarrari.

Joan den astebururik, barealdi ekuatorialarretatik ateratzeko borrokan buru belarri aritu dira. Egun berean, ekialdetik zetozen haize bolada leunak eta erabateko barealdiak txandakatu dira. Horrek eta itsasoaren egoerak motorra erabiltzen behartu zituen, baina erregaia aurrezteko asmoz, oso motel joan dira asteburuan, horregatik orduko 5 milia baino ez zituzten egiten.

Egunotako beroaldia leuntzen ari da hego-ekialdeko alisioen etorrerari esker. Horrek belaontziaren barrua freskatzeko lagunduko du. Zeharbide honetan zaintzak hiru ordukoak izan beharrean bikoak dira, hiru taldetan banatuta, bizkarrean dagoen beroa dela eta. Beroari aurre egiteko, bizkarrean itzala bilatzen dute tripulatzaileek eta eguzkitan beharrezkoa denean bakarrik egoten dira, hau da, lema eramateko edo eskotak erabiltzeko. Horrez gain, ur asko eta infusioak edaten dituzte, eta ez dute jaten eguzkiak gogor jotzen duenean, arratsaldean eta iluntzean baizik.

Informazio gehiago eta elkarrizketak Komunikazioa

Nagore Anabitarte López

Tel. 943 50 39 55/688 661 690

Informazioa, irudiak eta bideoak: www.pakeabizkaia.com/ftp